



AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

GIZARTE ZERBITZUAK

BEREN JARDUERAK GIZARTE-ZERBITZUETAN GARATZEN DITUZTEN ELKARTEEI ZUZENDUTAKO
DIRULAGUNTZAK

- 2023. URTEA -

TXOSTEN TEKNIKOA



AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. AURKEZTUTAKO ELKARTEAK
 - 2.1.ESKAERA AURKEZTU DUTEN ELKARTEAK
 - 2.2.ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA OSATU DUTEN ELKARTEAK
3. AURREKONTUA
4. BALORAZIOA
 - 4.1.BALORAZIO IRIZPIDEAK
 - 4.2.EIKARTEEK ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA
 - 4.3.ELKARTEEN DESKRIBAPENA ETA BALORAZIOA
5. PROPOSAMENA



1. SARRERA

Dirulaguntzen xede orokorra elkartearen helburuak lortzen laguntzea izango da, ordezkaten dituzten kolektiboetara dagokienez.

Horretarako, Gizarte Zerbitzuen arloan Villabonako udalerrian diharduten, edota beren onuradunak Villabonako herritarrak diren elkarteetara 2023. urtean zehar garatutako jardueretarako dirulaguntzak emateko oinarriak zehaztu ziren, 2023ko otsailaren 28ko Tokiko Gobernu Batzarreko eginiko bilkuran.

Dirulaguntzek ondoko alor espezifikoak hartuko dituzte:

- Entitatearen eguneroko jardura mantentzea.
- Sentsibilizazio, hezkuntza eta informazio ekintza espezifikoak eta entitatearen jardura zabaltzea (jardunaldiak, mintegiak, ikastaroak, etab.).
- Esku-hartzeko programa espezifikoaren garapena, elkartearen jardueraren xede diren kolektiboetara zuzendurik. Boluntarioek burututako jarduerak bereziki baloratuko dira.

Herritarrak, orokorrean, sektore espezifikoetara bideratu ahal izango dira: familia, haurtzarora, dibertsitate funtzionala, mendekotasuna edo gaixotasunak dituzten pertsonak, gutxiengo etnikoa, inmigranteak, preso ohiak, osasungarriak ez diren kontsumo ohituretara mendekotasuna duten pertsonak, ludopatia, etab. adineko pertsonak eta Gizarte Zerbitzuen esku-hartzea behar duen gizarte arrisku egoerako beste edozein talde.

2. AURKEZTUTAKO ELKARTEAK

2.1. ESKAERA AURKEZTU DUTEN ELKARTEAK

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak jasotzeko eskabideak aurkezteko epea zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen zenetik 20 egun naturalak bete arte. Beraz, 2023eko apirilaren 12an argitaratu zenez, epea apirilaren 12tik maiatzaren 2ra izan zen.

Ezarritako epearen barruan, honako erakunde hauek aurkeztu zuten eskabidea:

	ELKARTEA	IFK	DATA	ERREGISTROA
1	ATECE	G20523635	2023-04-12	2023/1257
2	AGI	G20065660	2023-04-13 2023-04-14	2023/1284 2023/1290
3	AGIFES	G20124749	2023-04-18	2023/1347
4	ADEMG	G20515623	2023-04-21	2023/1403
5	ORTZADAR	G75068874	2023-04-26	2023/1473
6	ATZEGI	G20044095	2023-04-26	2023/1489



7	ELKARTASUN SAREA	G02963718	2023-04-28	2023/1517
8	GAUTENA	G20058830	2023-04-28	2023/1538
9	IZAN FUNDAZIOA	G20093415	2023-04-28	2023/1539
10	GENE	G20378139	2023-05-02	2023/1549
11	AECC	G28197564	2023-05-02	2023/1550

2.2. ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA OSATUTA DUTEN ELKARTEAK

Elkarteentzako 2023eko dirulaguntzen oinarri arautzaileen 5.2 puntuan oinarrituta, laguntzak jasotzeko eskaerak ondoko dokumentazioarekin batera aurkeztu behar ziren:

- 1) Dirulaguntza eskaera normalizatua, behar bezala bete, honekin batera doan ereduaren arabera.
- 2) Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitate-erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria
- 3) Erakundearen Identifikazio fiskaleko kodearen fotokopia (I.F.K.) eta erakundearen ardura duen pertsonaren NANA.
- 4) Erakundearen edo sozietatearen estatutuak.
- 5) Eskaria egiten duen Erakundeak irekitako Kontu Korrontearen titularitatea ziurtatzeko banketxe edo aurrezki kutxa horrek emaniko agiria.
- 6) Instituzio, Erakunde eta abarrei eskatutako dirulaguntzen, edo, hala bada, jasota dituztenaren aitortpena.
- 7) Aurkeztutako programaren txostena zehaztua. Txostena euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko da, euskarari lehentasuna emanaz. Balorazioarako gehienez ere 22 orrialde izan beharko ditu (azala barne).
- 8) Dirulaguntzaren xede izango den programaren aurrekontua.
- 9) Entitatearen urteko aurrekontua.
- 10) Administrazioarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga obligazio guztiak bete izanaren ziurtagiria.
- 11) Zinpeko aitortpena, non adierazten den dirulaguntzak jasotzeko inolako debekurik ez duela. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 2. eta 3. artikuluetan zehaztutakoak izango dira, agiri honi atxikitzen zaion ereduari jarraiki.

Aurretik adierazitako dokumentazioa kontuan hartuta eta eskabideak aztertuta, eskatutako dokumentazioa osatu duten elkarteak honako hauek dira:

	ELKARTEA	IFK
1	ATECE	G20523635
2	AGI	G20065660
3	AGIFES	G20124749
4	ADEMG	G20515623
5	ORTZADAR	G75068874
6	ATZEGI	G20044095



7	ELKARTASUN SAREA	G02963718
8	GAUTENA	G20058830
9	IZAN FUNDAZIOA	G20093415
10	GENE	G20378139
11	AECC	G28197564

3. AURREKONTUA

Oinarri arautzaileen 10. puntuan oinarrituta, dirulaguntzak emateko zenbatekoa 10.000,00 eurokoa da, 1.0200.481.230.30.01.2023. partidan kargatuko dena.

4. BALORAZIOA

4.1. BALORAZIO IRIZPIDEAK

2023. urteko oinarri arautzaileen oinarrituta, erakunde edo elkarte bakoitzari emango zaion dirulaguntza kopurua ezartzeko helburuarekin, alderdi hauek izango dira kontuan:

Udaleko aurrekontuan helburu horretarako aurreikusitako zenbatekoa.

Gehienez hiru erakunde diruz lagunduko dira, eta hautaketa egiteko balorazio irizpideak hartuko dira kontuan.

Jarraian adierazten diren irizpideak kontuan izanik, puntuaketa handiena duten hiru elkartei proportzionalki aurrekontuan ezarritako diruaren arabera emango zaie dirulaguntza.

Garatu beharreko jarduera edo programen balorazio irizpideak honako hauek izango dira:

AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN BALORAZIOA		
Jarduera-eremua: lehenetasuna izango dute Villabonan eta eskualdean jarduera esparrua duten entitateek, beren jarduerak Villabonan garatzen dituzten kontuan hartuta	Villabonan jarduera esparrua	15
	Eskualdean jarduera esparru	10
	Gipuzkoan jarduera esparrua	5
Hartzaileak:	Herritarrak orokorrean	5
	Elkarteko kideak	5
Proiektuaren kalitatea: helburuen eta ekintzen definizioa, iraupen-denbora, gaiaren arteko koherentzia, proposatutako helburuak, garatu beharreko jarduerak, emaitzak eta aurrekontua		15
Genero ikuspegia txertatzea edo emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna sustatzea.		5
ENTITATE ESKATZAILEAREN BALORAZIOA		
Entitatearen egoitza	Udalerrikoa	10
	Lurraldekoa	8
	Euskal Herrikoa	6
	Estatukoa	4
	Nazioartekoa	2
Elkarte eskatzaileak gizarte arloan izandako jarraitasuna eta egonkortasuna	>5 urte	10
	>3 urte	5
	1-3 urte	2
	>50 onuradun/bazkide	10



Villabonako onuradun edo bazkide kopurua	20 eta 50 onuradun/bazkide bitartean	5
	<20 onuradun/bazkide	2
Udal gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea	Kasuen koordinazio eraginkorra	4
	Beste gai batzuegatiko koordinazio eraginkorra	3
	Jarduerak, ekitaldiak eta abar antolatzeko lankidetzak	3
Elkarteak udalerrian duen eragina azken 3 urteetan udalerrian egindako eta ikusgai jarri diren jarduerak eta esku-hartzeak		5

Aurrez adierazitako balorazio-irizpideez gain, aurkeztutako proiektuei dagokienez, ez dira baloratuko 22 orrialde baino luzera handiagoko lanak (azala barne). Ez da baloratuko proiektutik kanpo aurkezten den dokumentazioa, baloratu beharreko atalen bat aipatzen duena.

4.2. ELKARTEEK ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA

Ondoren, elkarte bakoitzak eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa ezarri da:

	ELKARTEA	IFK	DIRULAGUNTZA-ESKAERA
1	ATECE	G20523635	1.000,00 €
2	AGI	G20065660	8.000,00 €
3	AGIFES	G20124749	3.000,00 €
4	ADEMG	G20515623	1.000,00 €
5	ORTZADAR	G75068874	1.000,00 €
6	ATZEGI	G20044095	999,00 €
7	ELKARTASUN SAREA	G02963718	4.000,00 €
8	GAUTENA	G20058830	300,00 €
9	IZAN FUNDAZIOA	G20093415	3.000,00 €
10	GENE	G20378139	950,00 €
11	AECC	G28197564	521,48 €

4.3. ELKARTEEN DESKRIBAPENA ETA BALORAZIOA

Jarraian, erakunde eskatzailearen eta aurkeztutako proiektuaren deskribapen laburra egin da, urte honetako oinarri arautzaileetan zehaztutako balorazio-irizpideen arabera egindako balorazioarekin batera.

Elkarteek emandako datu orokorrak kontuan hartuta, item jakin batzuk honela baloratu dira:

Proiektua baloratzeko, honako atal hauek hartu dira kontuan: helburuen eta ekintzen definizioa, iraupen-denbora, gaiaren arteko koherentzia, proposatutako helburuak, garatu beharreko jarduerak, emaitzak eta aurrekontua.

ATALA	PUNUAZIO OROKORRA	PUNUAZIO ZEHATZA	
Helburuak	5	Helburu nagusia eta helburu zehatzak	5
		Helburu orokorra bakarrik edo helburu batzuk	2
		Helbururik ez da zehaztu	0
Jarduerak	6	Jarduerak garatuta	6
		Jarduerak garatuta, baina iraupen denborarik gabe	5
		Jarduerak aipatuta baina garatu gabe	3
		Jarduerarik zehaztu gabe	0



Emaitzak	2	Aurreko urteetako emaitzak aipatuta	2
		Emaitzik zehaztu gabe	0
Aurrekontua	2	Proiektu barne zehaztuta	2
		Eskabidean zehaztuta: proiektuaren deskribapenean	0,5

Generoaren eta berdintasunaren ikuspegiarekin lotutako itemean, 1-2 puntu eman zaizkie arlo hori lantzen laguntzen duten ekintzei; puntuaziorik handiena, 3-5 puntu, eman zaie lan sakonagoa dutenei, hala nola berdintasun-planak, lankidetzeta-hitzarmenak eta abar dituztenei.

4.3.1. ATECE ELKARTEA

Azalpena:

ATECE Elkarteak 2 orrialdeko proiektu bat aurkeztu du.

Elkartearen Aisialdi arloaren barruan eskulan tailer bat egingo da.

Tailer honen helburu nagusia kaltetuen gaitasun guztiak sustatzea eta bultzatzea da jarduera ludiko baten bitartez eta birgaitze funtzio garrantzitsu batez.

Beste helburu hauek ere landuko dira:

- Gaitasun eta trebetasun potentzialak garatzea eta aurkitzea. Horien artean irudimena, sormena, sentsibiltatea, gai ezberdinekiko interesa, etab. daudelarik.
- Portaera ezegokiak aldatzea, erasokorrak, osasunaren kalterakoak, etab.

Burmuina gaitza duten pertsoneri zuzenduta dago.

Eskulan programaren barruan hurrengo jarduera hauek daude:

- Igeltsua
- Margotzea
- Mod Poge koadroak
- Akuarelaz eginiko koadroak
- Pintura egurrean
- Tresna ezberdinez burututako markoak
- Gabonetako postalak
- Ispiluetan eginiko marrazkiak
- Dekorazio platerak

Aurkeztutako proiektuari buruzko ondorengo informazioa jaso da:

- **Jarduera eremua:** elkarte honen eremua Gipuzkoa da.
- **Hartzaileak:** Burmuniako gaitza duten pertsoneri zuzenduta dago.
- **Proiektuaren kalitatea:** programaren helburuak zehaztu dira; jarduerak azaldu dira, baina oso modu orokorrean, inolako garapenik gabe; beste urte batzuetan egindako lanen emaitzarik ez dago; aurrekontua aurkeztu da eskabidean.
- **Genero ikuspegia/berdintasuna:** ez da aipamenik egin proiektuan. Eskabidean aipatu da genero-ikuspegia hizkuntzan eta irudietan dagoela, baina ez dute aurkeztu horren justifikazio-dokumenturik.



Entitate eskatzaileari buruzko informazioa hurrengoa da:

- **Entitatearen egoitza:** Donostian dago kokatuta.
- **Elkarte eskatzaileak gizarte arloan izandako jarraitasuna eta egonkortasuna:** Elkartearen erregistroan inskribatuta dago 1995etik.
- **Villabonako onuradun edo bazkide kopurua:** ez da aipamenik egin proiektuan, baina eskaeran 10 pertsona onuradun daudela zehaztu da.
- **Udal gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea:** ez da aipamenik egin proiektuan. Eskabidean Gizarte Zerbitzuekiko koordinazioa aipatu da: informazio, laguntza eta aholkularitza zerbitzua eta koordinazioa kasuetan. Orain arte, Gizarte Zerbitzuetan ez da egin elkarlan bat erakunde honekin.
- **Elkarteak udalerrian duen eragina: azken 3 urteetan udalerrian egindako eta ikusgai jarri diren jarduerak eta esku-hartzeak:** ez da aipamenik egin proiektuan.

PROIEKTUA AURKEZTU DUEN ELKARTEA		ATECE ELKARTEA	
PARAMETROAK	BALORAZIOA	Puntuazio totala	Emandako puntuazioa
AURKEZTUTAKO PROIEKTUA			
1.- Jarduera-eremua	Villabonan jarduera eremua	15	5
	Eskualdean jarduera eremua	10	
	Gipuzkoan jarduera eremua	5	
2.- Hartzaileak	Herritarrok orokorrari zuzenduta	5	5
	Elkarteko kideei zuzenduta	5	
3.- Proiektuaren kalitatea		15	5,5
4.- Genero ikuspegia / Berdintasuna		5	1
ENTITATE ESKATZAILEAREN BALORAZIOA			
1.- Entitatearen egoitza	Udalerrikoa	10	8
	Lurraldekoa	8	
	Euskal herrikoa	6	
	Estatukoa	4	
	Nazioartekoa	2	
2.- Elkarte eskatzaileak gizarte arloan izandako jarraitasuna eta egonkortasuna	>5 urte	10	10
	>3 urte	5	
	1-3 urte	2	
3.- Villabonako onuradun edo bazkide kopurua	>50 onuradun/bazkide	10	2
	20 eta 50 onuradun/bazkide bitartean	5	
	<20 onuradun/bazkide	2	
4.- Udal gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea	Kasuen koordinazio eraginkorra	4	0
	Beste gai batzuentzako koordinazio eraginkorra	3	
	Jarduerak, ekitaldiak eta abar antolatzen lankidetzak	3	
5.- Elkarteak udalerrian duen eragina: azken 3 urteetan udalerrian egindako eta ikusgai jarri diren jarduerak eta esku-hartzeak		5	0
PUNTUAZIO OROKORRA		36,5	



Azalpena:

AGI elkarteak 15 orrialdeko proiektua aurkeztu du.

Elkartearen helburu nagusia ondorengoa da: ikusmen-desgaitasuna edo itsutasuna duten pertsonak bizitzako eremu guztietan erabat integratzea, beren autonomia pertsonala hobetzea eta familiei eta inguruko profesionaleri laguntzea.

Aurrekoaren harira, hauek dira bere helburuak:

- Gizarte-eraldaketa egitea, kolektibo horren errealitatea eta egunerokotasuna Gipuzkoako gainerako gizartera hurbilduz.
- Itsuak eta ikusmen gutxikoak gizarteratzea, bai haurrak eta gazteak, bai helduak eta adinekoak.
- Desgaitasuna duten pertsonetako eta adinekoetako jarrera positiboak sentsibilizatzea eta sustatzea, diskriminazioa prebenitzeko neurri gisa.
- Norberaren, familiaren eta gizartearen beharrak eta arazoak ezagutaraztea.
- Gizartea kontzientziatzea eta sentsibilizatzea, ikusmen-desgaitasunarekiko eta horrek suposatzen duenarekiko tolerantzia- eta ulermen-jarrera sustatuz.
- Kultura- eta gizarte- aniztasuna sustatzea.
- Pertsona kalteberenen edo autonomia gutxien dutenen aurrean laguntza eta lankidetzarako joera sustatzea.
- Jokabide-aldaketa sustatzea gizartean, taldean eta bakarka, eta inplikazio handia.
- Erakunde, ikastetxe, udalerrri eta abarretan irisgarritasuna hobetzeko behar diren ezagutzak eskaintzea.
- Herritarrak kontzientziatzea eta sentsibilizatzea dauden desgaitasun desberdinei buruz, ezgaitasun horiek onartzeko duten erantzukizunari buruz eta kasu bakoitzean beharrezkoa den laguntza emateari buruz.
- Desgaitasuna duten gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzea.
- Ikusmen-desgaitasuna duten emakumeen kolektiboaren berdintasunaren eta ekitatearen alde lan egitea.
- Elkarteetako adineko pertsonen eta elkartekideen senideen parte-hartzea sustatzea.
- Elkarteekin, erakundeekin, gizarte eragileekin eta, oro har, baliabideekin koordinatuta lan egitea, bizi-kalitate hobea lortzeko eta erabiltzaileak gizarteratzeko.
- Informazio bila hurbiltzen diren pertsonen, ikastetxeen, erakundeen eta bestelako baliabideen lehen topagunea izatea.
- Herritar guztientzat eta bereziki eragindako pertsonentzat interesgarritzat jotzen den informazio guztia biltzea eta zabaltzea, aztergai dugu gaiari dagokionez.
- Gure elkartearen prestakuntza-praktikak egin nahi dituzten pertsona guztiak hartzea.
- Elkartearen antolatutako jardueretan euskararen erabilera sustatzea.
- Elkartearen kudeaketan boluntariora sustatzea eta jarduerak abian jartzea.

Programaren xede den kolektiboa:

- Gipuzkoako biztanleria, oro har.
- Ikusmen-desgaitasuna edo itsutasuna duten pertsonak, haien senideak eta inguruko pertsonak, boluntarioak, itsutasunaren eta ikusmen eskasaren sektoreko pertsonak, hezkuntzaren, osasunaren eta abarren arloko profesionalak.
- Ikastetxeak, udalerriak, ospitalerak, erakundeak eta entitate publiko zein pribatuak.

Jarduerei dagokienez, honako hauek daude:



- Sentsibilizazio eta inklusio jardunaldiak.
- Hitzaldiak eta tailerrak.
- Hiruhileko informazio boletina.
- Web orriaren eta sare sozialen bidezko hedapena.

Aurkeztutako proiektuari buruzko ondorengo informazioa jaso da:

- **Jarduera eremua:** elkarte honen eremua Gipuzkoa da.
- **Hartzaileak:** Gipuzkoako biztanleria, oro har. Ikusmen-desgaitasuna edo itsutasuna duten pertsonak, haien senideak eta inguruko pertsonak, boluntarioak, itsutasunaren eta ikusmen eskasaren sektoreko pertsonak, hezkuntzaren, osasunaren eta abarren arloko profesionalak. Ikastetxeak, udalerrriak, ospitalerak, erakundeak eta entitate publiko zein pribatuak.
- **Proiektuaren kalitatea:** programaren helburuak zehaztu dira; jarduerak azaldu dira eta garatu dira; emaitzak ez dira zehaztu; eskabidean zehaztu dute aurrekontua.
- **Genero ikuspegia/berdintasuna:** Ikusmen-desgaitasuna edo itsutasuna duten emakumeentzako ahalduntze- eta autoestimua-programa bat dute, tailer batzuen bidez bideratzen dena. Tailer horietan honako gai hauek lantzen dira: autoestimua, gizarte-desberdintasuna, sexualitatea, lidergoa, komunikazioa, amatasuna, genero-indarkeria, eta abar. Horretaz gain, hedapen-kanpainak ere antolatzen ditu aukera-berdintasuna sustatzeko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko.

Entitate eskatzaileari buruzko informazioa hurrengo da:

- **Entitatearen egoitza:** Donostian dago kokatuta.
- **Elkarte eskatzaileak gizarte arloan izandako jarraitasuna eta egonkortasuna:** Elkartearen erregistroan inskribatuta dago 1980tik.
- **Villabonako onuradun edo bazkide kopurua:** elkartearen 73 bazkideri ematen diete arreta eta horietatik 12 Villabonakoak (7 emakume/neska eta 5 gizon/mutil). Halaber, 148 senitartekoei ematen diete arreta, horietatik, 15 Villabonakoak (9 emakume eta 6 gizon).
- **Udal gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea:** elkarlanik ez da egon orain arte.
- **Elkarteak udalerrian duen eragina:** azken 3 urteetan udalerrian egindako eta ikusgai jarri diren jarduerak eta esku-hartzeak: ez da burutu.

PROIEKTUA AURKEZTU DUEN ELKARTEA		AGI ELKARTEA	
PARAMETROAK	BALORAZIOA	Puntuazio totala	Emandako puntuazioa
AURKEZTUTAKO PROIEKTUA			
1.- Jarduera-eremua	Villabonan jarduera eremua	15	5
	Eskualdean jarduera eremua	10	
	Gipuzkoan jarduera eremua	5	
2.- Hartzaileak	Herritarrak orokorrari zuzenduta	5	10
	Elkarteko kideei zuzenduta	5	
3.- Proiektuaren kalitatea		15	11,5
4.- Genero ikuspegia / Berdintasuna		5	2
ENTITATE ESKATZAILEAREN BALORAZIOA			
1.- Entitatearen egoitza	Udalerrikoa	10	8
	Lurraldekoa	8	
	Euskal herrikoa	6	
	Estatukoa	4	



	Nazioartekoa	2	
2.- Elkarte eskatzaileak gizarte arloan izandako jarraitasuna eta egonkortasuna	>5 urte	10	10
	> 3 urte	5	
	1-3 urte	2	
3.- Villabonako onuradun edo bazkide kopurua	>50 onuradun/bazkide	10	5
	20 eta 50 onuradun/bazkide bitartean	5	
	<20 onuradun/bazkide	2	
4.- Udal gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea	Kasuen koordinazio eraginkorra	4	0
	Beste gai batzuegatiko koordinazio eraginkorra	3	
	Jarduerak, ekitaldiak eta abar antolatzeko lankidetzak	3	
5.- Elkarrekin udalerrian duen eragina: azken 3 urteetan udalerrian egindako eta ikusgai jarri diren jarduerak eta esku-hartzeak		5	0
PUNTUAZIO OROKORRA		51,5	

4.3.3. AGIFES ELKARTEA

Azalpena:

AGIFESek 22 orrialdeko proiektua aurkeztu du.

Bere misioa: Gipuzkoako gizartean buru osasuna hobetzeko lan egitea, buru osasun arazoaren normalizazioa eta gizartearen buru osasunarekin loturiko arazo horiek bere gain har ditzan lortzeko.

Ilido horretatik, bere helburu nagusia da kaltetu nagusien beharrei erantzutea eta haien bizi baldintzak hobetzea.

Horretarako, ezinbestekoa da arazoa duten pertsonen autonomia eta garapen pertsonala areagotzeko bitartekoak eskaintzea errehabilitazioan eta komunitatean barneratzen laguntzeko eta baita senide eta zaintzaileei laguntza eta babesa ematea ere.

Programa bakoitzeko helburuak ere zehaztu dira.

Buru osasun arazoak dituzten pertsona eta haien senideei zuzenduta dago.

Eskatutako laguntza ondorengo programetarako izango da:

- Harrera, informazio, gizarte orientazio eta jarraipeneko programa. Helburua: orientazioa, laguntza emozionala eta gatazka konpontzeko eta erabakiak hartzeko baliabideak eskaintzea.
- Senide eta zaintzaileentzako laguntza programa. Helburua: zama emozionalaren kudeaketa erraztea, bakartze soziala saihestuz eta komunikazioa eta gatazken konponbide positiboa sustatuz.
- Sentsibilizazio kanpaina barruan buru osasun arazoaren bat duten pertsonen, senideen eta gizartearen zuzenduriko ekitaldiak. Helburua: familiei eta inguruneari prestakuntza eta informazioa ematea, normalizazioa, laguntza eta sentsibilizazio soziala sustatzeko.

Aurkeztutako proiektuari buruzko ondorengo informazioa jaso da:

- **Jarduera eremua:** Gipuzkoa lurraldean
- **Hartzaileak:** Buru osasun arazoak dituzten pertsona eta haien senideei zuzenduta dago. Gizartearen zuzendutako ekintzak eta kanpainak ere egiten dituzte.



GIZARTE ZERBITZUAK

- **Proiektuaren kalitatea:** programaren helburuak adierazi dira; jarduerak azaldu dira zehatasunez; 2022.urteko arretari eta ekintzei buruzko datuak eman dira; aurrekontua eskabidean azaldu da.
- **Genero ikuspegia/berdintasuna: gai honen inguruan bideratutako jarduerari dagokionez,** hizkuntza ez-sexista erabiltzearen premiari eta garrantziari buruzko prestakuntza eskaintzea langileei; hizkuntza diskriminatzailearen erabilera baztertzea, bai kontratuak egiten dituen erakundeekin, bai beste instituzio publiko batzuekiko harremanetan ere; emakumeek erabakiak hartzen parte har dezaten bermatzea, etab. Ildo horretatik "GENERO BERDINASUNAREN DIAGNOSTIKOA" proiektuan parte hartu zuen 2012an, FEDEAFESekin lankidetzan eta pasa den urtetik "Buru gaixotasuna duten emakumeen burujabetza"-ren aldeko sentsibilizazio kanpaina garatu dute.

Entitate eskatzaileari buruzko informazioa hurrengoa da:

- **Entitatearen egoitza:** bere xedea Donostian dago.
- **Elkarte eskatzaileak gizarte arloan izandako jarraitasuna eta egonkortasuna:** Agifesen sorrera 1985. urtean izan zen, Eusko Jaurlaritzak onura publikoko izendatuta, 423/1995 Dekretuaren bidez eta gizarte interesekoa 24/07/2018an.
- **Villabonako onuradun edo bazkide kopurua:** Villabonan 11 pertsona eta bere familiak.
- **Udal gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea:** ez da aipamenik egin proiektuan.
- **Elkarteak udalerrian duen eragina: azken 3 urteetan udalerrian egindako eta ikusgai jarri diren jarduerak eta esku-hartzeak:** ez da aipamenik egin proiektuan.

PROIEKTUA AURKEZTU DUEN ELKARTEA		AGIFES	
PARAMETROAK	BALORAZIOA	Puntuazio totala	Emandako puntuazioa
AURKEZTUTAKO PROIEKTUA			
1.- Jarduera-eremua	Villabonan jarduera eremua	15	5
	Eskualdean jarduera eremua	10	
	Gipuzkoan jarduera eremua	5	
2.- Hartzailak	Herritarrak orokorrari zuzenduta	5	10
	Elkarteko kideei zuzenduta	5	
3.- Proiektuaren kalitatea		15	13,5
4.- Genero ikuspegia / Berdintasuna		5	2
ENTITATE ESKATZAILEAREN BALORAZIOA			
1.- Entitatearen egoitza	Udalerrikoa	10	8
	Lurraldekoa	8	
	Euskal herrikoa	6	
	Estatukoa	4	
	Nazioartekoa	2	
2.- Elkarte eskatzaileak gizarte arloan izandako jarraitasuna eta egonkortasuna	>5 urte	10	10
	> 3 urte	5	
	1-3 urte	2	
3.- Villabonako onuradun edo bazkide kopurua	>50 onuradun/bazkide	10	2
	20 eta 50 onuradun/bazkide bitartean	5	
	<20 onuradun/bazkide	2	
4.- Udal gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea	Kasuen koordinazio eraginkorra	4	0
	Beste gai batzuegatiko koordinazio eraginkorra	3	
	Jarduerak, ekitaldiak eta abar antolatzeak lankidetzan	3	



5.- Elkarteak udalerrian duen eragina: azken 3 urteetan udalerrian egindako eta ikusgai jarri diren jarduerak eta esku-hartzeak	5	0
PUNTUAZIO OROKORRA	50,5	

4.3.4. ADEMG I ELKARTEA

Azalpena:

ADEMG I Elkarteak 22 orrialde dituen proiektua aurkeztu du.

Esklerosi Anizkoitza eta beste gaixotasun neurologikoak dituzten gaixoei eta senideei zuzenduta dago.

Elkartearen helburuak honako hauek dira:

- Gaixotasuna duten pertsonak eta beren senideak informatu, bideratu eta aholkatzea.
- Esklerosi Anizkoitza duten pertsonen, zerbitzu fisiko-psikologiko espezializatu bat eskaini.
- Mugimendu elkargarria bultzatu.
- Esklerosi Anizkoitza duten pertsonen gizarteratzea ahalbidetu.
- Ikerkuntza eta osasun lanbide harremanak sustatu.

Programen helburuak:

- Esklerosi Anizkoitza dutenen bizi-kalitatea hobetu.
- Senitartekoen bizi-kalitatea hobetu.
- Erasandakoen bizitza kalitatea hobea egotuz.
- Gaigabezia ahal den neurrian atzeratu, autonomia mantentzen ahaldeginuz.

Honako zerbitzu hauek eskeintzen dituzte:

- Psikologia
- Fisioterapia
- Logopedia
- Gizarte lana

Aurkeztutako proiektuari buruzko ondorengo informazioa jaso da:

- **Jarduera eremua:** elkarte honen eremua Gipuzkoa da.
- **Hartzaileak:** Proiektu honek, aipatutako arazoa duten pertsonen eta beraien familiei zuzenduta dago.
- **Proiektuaren kalitatea:** programaren helburuak zehaztu dira; Jarduera bakoitza azaldu da modu sakonean; emaitzik ez da zehaztu; aurrekontua aurkeztu da.
- **Genero ikuspegia/berdintasuna:** proiektuan ez dago aipamen zehatzik.

Entitate eskatzaileari buruzko informazioa hurrengoa da:

- **Entitatearen egoitza:** Donostian dago kokatuta.
- **Elkarte eskatzaileak gizarte arloan izandako jarraitasuna eta egonkortasuna:** Elkartearen erregistroan inskribatuta dago 1995tik.



GIZARTE ZERBITZUAK

- **Villabonako onuradun edo bazkide kopurua:** Udalerriko lau erabiltzaile artatu dira eta bere senideak.
- **Udal gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea:** ez da zehaztu.
- **Elkarteak udalerrian duen eragina: azken 3 urteetan udalerrian egindako eta ikusgai jarri diren jarduerak eta esku-hartzeak:** ez da zehaztu.

PROIEKTUA AURKEZTU DUEN ELKARTEA		ADEMGI ELKARTEA	
PARAMETROAK	BALORAZIOA	Puntuazio Totala	Emandako puntuazioa
AURKEZTUTAKO PROIEKTUA			
1.- Jarduera-eremua	Villabonan jarduera eremua	15	5
	Eskualdean jarduera eremua	10	
	Gipuzkoan jarduera eremua	5	
2.- Hartzaileak	Herritarrak orokorrari zuzenduta	5	5
	Elkarteko kideei zuzenduta	5	
3.- Proiektuaren kalitatea		15	12
4.- Genero ikuspegia / Berdintasuna		5	0
ENTITATE ESKATZAILEAREN BALORAZIOA			
1.- Entitatearen egoitza	Udalerrikoa	10	8
	Lurraldekoa	8	
	Euskal herrikoa	6	
	Estatukoa	4	
	Nazioartekoa	2	
2.- Elkarte eskatzaileak gizarte arloan izandako jarraitasuna eta egonkortasuna	>5 urte	10	10
	> 3 urte	5	
	1-3 urte	2	
3.- Villabonako onuradun edo bazkide kopurua	>50 onuradun/bazkide	10	2
	20 eta 50 onuradun/bazkide bitartean	5	
	<20 onuradun/bazkide	2	
4.- Udal gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea	Kasuen koordinazio eraginkorra	4	0
	Beste gai batzuegatiko koordinazio eraginkorra	3	
	Jarduerak, ekitaldiak eta abar antolatzeko lankidetzak	3	
5.- Elkarteak udalerrian duen eragina: azken 3 urteetan udalerrian egindako eta ikusgai jarri diren jarduerak eta esku-hartzeak		5	0
PUNTUAZIO OROKORRA			42

4.3.5. ORTZADAR ELKARTEA

Azalpena:

Ortzadar Ekarteak 22 orrialde dituen proiektua aurkeztu du eta bertan ondorengo programa hau aurkeztu du: bazterketa arriskuan dauden aniztasun funtzionala duten pertsonen aldeko laguntza programa.

Aniztasun funtzionala duten pertsonen bideratuta dago.



Elkartearen misio nagusia, adimen mugatuko pertsonen eta haien familien interesak defendatzea da, elkartasun-ariketen, parte hartzearen, ordezkartzaren, aldarrikapenaren eta elkar laguntzaren bidez, adimen mugatuko pertsonen bizi-proiektuak sustatuz, garatuz eta kudeatuz.

Programaren helburuak:

Nagusia: mugako adimena duten pertsonen laguntza-beharrei erantzunak bilatzea dela, alde batetik, pertsona horien autonomia eta ahalduntzea sustatuz, eta bestetik, haien eskubideen defentsa ahalik eta gehien bultzatuz.

Zehatzak:

- Mugako adimena duten pertsonen eskubideak babestea.
- Mugako adimena duten pertsoneri arreta integrala eta diziplina anitzekoa eskaintzea, beren autonomia eta ahalduntzea sustatzeko, besteak beste, beren bizitza komunitarioa normalizatzen lagunduko duten jarduerak eskainiz.
- Mugako adimena duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko helburua duten zentro, zerbitzu, ekintza eta jarduerak sustatzea.
- Mugako adimena duen pertsonaren familiarekin lanketa egitea, mugako adimenaren inguruan informazioa eta orientazioa eskaintzea, kolektibo honen ezaugarriak eta jarrerak ulertzeko.
- Erabiltzaileek eta beren familiek Elkartearen kudeaketan, proiektuetan eta zerbitzuetan parte har dezaten sustatzea.
- Era guztietako erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea mugako adimena duten pertsonen ezaugarriak ezagutzera eramateko eta mugako adimena duten pertsonak oharkabean pasa ez daitezen, honela, gizarte bazterkeria arriskua prebenituz.
- Era guztietako erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea proiektua garatzeko eta sareko lana sustatzeko.
- Mugako adimena duten emakumeek, adimen mugatua duten eta emakumeak izateagatik pairatzen duten zapalkuntza hirukoitzari aurre egitea.

Ondorengo jarduerak zehaztu dira:

- Informazioa, balorazioa eta orientazioa.
- Laguntza, arreta eta jarraipen soziala.
- Bizimodu independienterako laguntza.
- Aisialdia eta oporrak.
- Formakuntzak.
- Bolondresgoaren sustapena eta parte hartzea.

Aurkeztutako proiektuari buruzko ondorengo informazioa jaso da:

- **Jarduera eremua:** elkarte honen eremua Gipuzkoa da.
- **Hartzaileak:** bazterketa arriskuan dauden aniztasun funtzionala duten pertsoneri zuzenduta dago, beraz, elkarteko kideei bideratutako laguntza da. **Proiektuaren kalitatea:** elkartearen eta programaren helburuak zehaztu dira; laguntza jarduerak azaldu dira; ez da emaitzik jaso; aurrekontua aurkeztu da.
- **Genero ikuspegia/berdintasuna:** 2020-2024 urteetan berdintasun plana osatu du Elkartek. Urtean zehar emakumeen ahalduntzera bideratutako ekintzak burutzen ditu. Generoa eta berdintasuna izeneko gida bat du.

Entitate eskatzaileari buruzko informazioa hurrengoa da:

- **Entitatearen egoitza:** Donostian dago kokatuta.



GIZARTE ZERBITZUAK

- **Elkarte eskatzaileak gizarte arloan izandako jarraitasuna eta egonkortasuna:** Elkarten erregistroan inskribatuta dago 2012tik.
- **Villabonako onuradun edo bazkide kopurua:** Gaur egun, 238 bazkide ditu, 56 emakume eta 182 gizon. Villabonakoak, 3 emakume.
- **Udal gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea:** ez da aipatu proiektuan. Eskabidean Gizarte Zerbitzuekiko koordinazioa aipatu da eta iazko urtean koordinazio hori egon zela baieztatu da.
- **Elkarteak udalerrian duen eragina: azken 3 urteetan udalerrian egindako eta ikusgai jarri diren jarduerak eta esku-hartzeak:** ez da burutu.

PROIEKTUA AURKEZTU DUEN ELKARTEA		ORTZADAR ELKARTEA	
PARAMETROAK	BALORAZIOA	Puntuazio totala	Emandako puntuazioa
AURKEZTUTAKO PROIEKTUA			
1.- Jarduera-eremua	Villabonan jarduera eremua	15	5
	Eskualdean jarduera eremua	10	
	Gipuzkoan jarduera eremua	5	
2.- Hartzaileak	Herritarrak orokorrari zuzenduta	5	5
	Elkarteko kideei zuzenduta	5	
3.- Proiektuaren kalitatea		15	12
4.- Genero ikuspegia / berdintasuna		5	5
ENTITATE ESKATZAILEAREN BALORAZIOA			
1.- Entitatearen egoitza	Udalerrikoa	10	8
	Lurraldekoa	8	
	Euskal herrikoa	6	
	Estatukoa	4	
	Nazioartekoa	2	
2.- Elkarte eskatzaileak gizarte arloan izandako jarraitasuna eta egonkortasuna	>5 urte	10	10
	> 3 urte	5	
	1-3 urte	2	
3.- Villabonako onuradun edo bazkide kopurua	>50 onuradun/bazkide	10	2
	20 eta 50 onuradun/bazkide bitartean	5	
	<20 onuradun/bazkide	2	
4.- Udal gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea	Kasuen koordinazio eraginkorra	4	4
	Beste gai batzuen eraginkorra	3	
	Jarduerak, ekitaldiak eta abar antolatzeak	3	
5.- Elkarteak udalerrian duen eragina: azken 3 urteetan udalerrian egindako eta ikusgai jarri diren jarduerak eta esku-hartzeak		5	0
PUNTUAZIO OROKORRA		51	

4.3.6. ATZEGI ELKARTEA

Azalpena:

Atzegi Elkarteak 18 orrialdeko proiektua aurkeztu du.



Helburuak:

- Familiei adimen desgaitasuna duen bere senidearen bizitzan zehar apoioa eskaintzea eta eurentzako elkargune edo erreferentzia gune izatea.
- Adimen desgaitasuna duten pertsonen bizi kalitatea hobetzea.
- Adimen Desgaitasuna duten pertsonen gizarte parte hartzea erraztea, inguruaren aldaketa eraginez eta gizarte sentsibilizatuago bat lortuaz.

Gipuzkoa mailan adimen desgaitasuna duen senideren bat duten eta bazkide diren familiei eta Gipuzkoako gizarteari orokorrean zuzenduta dago.

Ondorengo programak dituzte:

FAMILIEI zuzenduriko elkarte programak:

- Guraso Berriei Sostengua.
- Gizarte Laguntza.
- Eskolan Sartzeko Laguntza.
- Hezkuntza indartzea eskola garaian.
- Gerorako Aholkularitza.
- Atsedeen Zerbitzua programa.
- Bizitza independenterako familia laguntza.
- Pauso Berriak programa.

GIZARTEARI zuzenduriko elkarte programak:

- Inguruan programa.
- Gure Txanda programa.
